

Urtero-urtero aurrekontu proiektua prestatzea ahalegin handia da, baliabide mugatuekin Pasaiaren eta pasaitarren beharrei erantzun behar diegulako. Aurten ahalegin hori are handiagoa da, Covid-ak eragindako egoeratik, eta pandemiaren ondoriozko gastuengatik.

Baina muga horiekin eta egoera zail honetan da beharrezkoen udal kudeaketaren printzipioak eta lehenetsunak agerian uztea. Eta, alkate naizen aldetik, azpimarratu nahi dut berriz ere udalaren aurrekontuak gizarte-izaera izango duela, eta baliabideen % 60 oinarritzko zerbitzu publikoak eta kolektibo ahulenetara bideratutako gizarte-laguntzak finantzatzeko erabiliko dela. Zehazki, 20.160.000 euroko aurrekontutik 12 milioi bideratuko dira helburu horietarako.

Udal honek gastatuko dituen hiru eurotik bi funtsezko zerbitzu hauek finantzatzeko erabiliko dira: hirigintza, argiteria, hondakin-bilketa, edateko ura... Eta gizarte-arloko arreta, hala nola: etxeko laguntza, gizarte-larrialdietarako laguntzak, Berdintasun Arloa edo LHI. Alderdi horiek guztiek adierazten dute Pasaian aurrekontuen lehenetsuna dela baliabide publikoek gizarte-helburua izatea.

Ahalegin hori egin arren, alkate gisa aitortu beharra daukat gure baliabideak eskasak direla, eta ez direla nahikoak Pasaiaren beharrei erantzuteko, hainbat arlo sustatzeko beharko litzatekeen neurrian. Errealitate hori kudeatu behar dugu, eta hitzematen dut, gobernu talde osoaren izenean, ahalegin guztia egingo dugula baliabide horiek ahalik eta zorrotzen ezartzeko; eta lanean jarraituko dugula atsedetik gabe, hurrengo ekitaldietarako baliabide gehiago izan dezagun.

Hasieran aipatu dudan bezala, ohiko zailtasunak aurten larriagotu egin dira, Covid-19ak eragindako krisiagatik; ezinbestean krisi ekonomiko bilakatu den osasun-krisia.

2021eko ekitaldirako aurrekontu-proiektua 20.160.000 eurokoa da, eta 2020ko aurrekontuarekiko % 3,29 murriztagoa da, Covid-19ak eragindako osasun-krisiak sortutako krisi ekonomikoaren ondorioz. Gainera, aurrekontua egin dugu EZOHIKO SARRERAK kontuan izanik, berriro diot, "ezohikoak"; alde batetik, EIOZen diru-sarrerak 135.000 eurotik 630.000 eurora handituz, eta, bestetik, 300.000 euroko mailegua proposatuz, 2021eko inbertsioak finantzatzeko.

Pasaia hiritarrentzako zerbitzuetarako gastuak 16 milioi eurotik gorakoak dira: batetik, udalak bertako langileekin ematen dituen zerbitzuek 9.732.000 euroko kostua dute; eta, bestetik, kanpo-kontratazioen bidez ematen dituen zerbitzuek 6.613.000 euroko kostua dute. Kontu-sail horiekin honako zerbitzu hauek ematen dira: ura, hondakin-bilketa, kale-garbiketa, gizarte-zerbitzuak, euskara-zerbitzuak, kirol-zerbitzuak, kultura-zerbitzuak, parkeen mantentze-lanak, lorategiak. Memoria honen hasieran aipatu dudan bezala, aurrekontu honen % 60 oinarritzko zerbitzu publikoak eta gizarte-laguntzak finantzatzeko erabiliko da. Zehazki, 8.135.040 euro zerbitzuetarako eta 4.015.000 euro gizarte-laguntzetarako.

Beste alderdi garrantzitsu bat dira pasaitarren bizi-kalitatea hobetzera bideratutako inbertsioak, ingurunea hobetzera bideratutakoak, alegia. Aurrekontu-proiektu honetan jasotzen diren inbertsioen artean aipamen berezia merezi dute hirigintzako jarduketak hauek: pasaitarrei zerbitzuak emateko erabiltzen diren gune eta eraikinak birgaitzea, hala nola: haur-parkeak, Trintxerpeko futbol-zelaian hobekuntzak egitea, zoladura-lanak, liburuak... Hobekuntza horiek pasaitarren bizi-kalitatea areagotzen dute. Guztira, 622.000 euroko inbertsioa egingo da.

Inbertsio eta proiektu horietatik haratago, sutzuki lan egingo dugu beste administrazio batzuen konpromisoa lortzeko, gure finantziarioa hobetu, eta proiektu berriak egikaritu ahal izateko; gobernu talde honek beti egiten duen bezala. Alderdi horretan gogor lan egiten jarraituko dugu, udalerrarentzat onurak lortzen ari baikara. Horren adierazgarri da duela gutxi iragarritako topoaren zatibitzea, pasaitar guztien onurarako izango dena, bereziki, antxotarren onurarako.

Diru-sarrera eta proiektuak erakartzeko ahalegin horrekin batera, kudeaketan zorrotzak izango gara, eta arreta berezia jarriko dugu kanpo-zerbitzuen kontratuetan, gastu handia eragiten dutelako. Beraz, kontratazio horiek aztertu egin beharko dira.

Beste kapitulu garrantzitsu bat da langileen gastua: 9,732,429 eurokoa (9.603.000 euro 2020an).

Bestalde, 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorrek funtzionarioen ordainsarien % 0,9ko igoera aurreikusi dute. Izan daitekeen igoera hori ez da 1. kapituluaren islatu, izan ere, hori aplikatzeko Estatuko Aurrekontu Orokorrek onartu behar dira, eta oraindik ez dira onartu. Azkenean igoera hori onartzen bada, berriz ere ahalegin bat egin beharko dugu 1. kapituluaren aurrezkiekin edo 100,000 euroko kreditu orokorrarekin. Gogorazi nahi dizuet 1. kapituluaren gastuen kapituluaren % 48 dela.

Bestalde, udalak, guztiok dakizuen bezala, udalak 2.675.846 euroko gastua egiten du transferentzia eta dirulaguntzetan. Beste erakunde batzuei egindako transferentziak hauek dira, besteak beste: San Markoko Mankomunitateari 355.000 euro, Oarsoaldeari 460,000 euro eta erakunde autonomoei 524.718 euro. Horrez gain, hainbat dirulaguntza ematen du udalak, sustapen-jardueretarako: kultura elkarteei, hezkuntza-elkarteei, gazteria-elkarteei, kirol-elkarteei, familiei (GLL)... euskara dirulaguntzak... Guztira, 1.336.126 euroko laguntzak, erakunde eta elkarteek pasaitarrei zerbitzuak eman diezazkieten.

Aurrekontuaren lehentasunetako bat da, lehen esan dugun moduan, gizarte-zerbitzuetara bideratutako gastua: 4.015.000 euro. Zerbitzu horiek barne hartzen dituzte etxez etxeko arreta, gizarte-larrialdietarako laguntzak, Berdintasun Arloa edo LHI, besteak beste. Horrek frogatzen du udal gobernu honek beharrik gehien dutenei zuzendutako zerbitzuak zaindu eta mantentzearen aldeko apustu argia egiten duela egungo egoeran. Ez dut aipatu gabe utzi nahi, areago, espresuki aipatu nahi dut, gizarte larrialdiei buruzko partida; litekeena da, aurreko ekitaldietan bezala, partida hori handitu behar izatea. Horretan ere "badugu lana". Eusko Jaurlaritzak laguntza gehiago eman behar du programa horretarako, haren eskumenekoa baita, Gizarte Zerbitzuen Zorroaren arabera.

SARREREN atalari dagokionez, adierazi beharra dago udalaren finantziazioaren % 51 (10.200.000 euro) Foru Aldunditik datorrela, Udal Finantziatorako Foru Funtsaren bitartez, izaera helburuduna ez duen finantziazio gisa, eta gure finantziazio-iturri nagusia dena; % 40 tasa eta zergetatik lortzen da; % 8 beste erakunde batzuek zerbitzu eta inbertsio jakinetarako ematen dituzten izaera helburuduneko dirulaguntzetatik; eta % 1 beste diru-sarrera batzuetatik.

Diru-sarrerei dagokienez, adierazi beharra dago sarreraren zati bat zerga eta tasetatik datorrela, hain zuzen ere, udalaren sarreraren % 40; hortik ondoriozta daiteke Zerga Ordenantzek eta Aurrekontuak harreman zuzena dutela. Kopuruek agerian uzten dute ekarpen horiek zein garrantzitsuak diren, pasaitarrei bizi-kalitatea ematen dieten zerbitzu horiek bermatzeko, eta gehien behar dutenentzako laguntzak finantzatzeko.

Beste batzuetan esan izan dudana bezala, ez dugu etsitzen egoera honekin, eta borrokan jarraituko dugu, Pasaiak portuaren azpiegitura izategatik jaso beharko lituzkeen eta jasotzen ez dituen diru-sarrerak lortzeko; izan ere, jarduera horrek ez du gure diru-sarreretan eraginik, gure egunerokotasuna nabarmen baldintzatzen duen arren. Askotan adierazi izan dut: ez dugu pribilegiarik eskatzen, beste udalari askok euren udalerrietan egiten diren jardueretatik sarrerak eskuratzeko dituzten tresnak eskatzen ditugu; berdintasuna eta bidezko tratua eskatzen dugu.

Agiri hau gogoetarako eta lankidetzarako oinarria izatea nahi dut. Lankidetza, barne-mailakoa, udal helburu gehienak amankomunak direlako, pasaitarren interesez hitz egiten ari garelako. Eta lankidetz

Beste administrazio batzuekin, Pasaiarekin eta pasaitarrekin ekitate-irizpidea aplikatu behar dutelako.

Bukatzeko, berriz ere aipatu nahi dut pandemiaren ondorioz bizi dugun egoera larria.

## ALKATEAREN MEMORIA, 2021EKO AURREKONTUA

Egoera zailean daudenei zuzenduko natzaie, beren osasunean edo beren senideen osasunean kalteak izan dituztenei, edo beren lanpostuetan edo egoera ekonomikoan pandemiaren ondorioak pairatzen ari direnei. Horiei guztiei, lehenik eta behin, gure elkartasuna adierazi nahi diegu, eta esan nahi diegu beti ondoan izango gaituztela, gure esku dagoen guztia egingo dugula, eta ez dugula lanean eta ahaleginean etsiko. Horiei guztiei erantzukizuna eta laguntza eskatzen diet, lankidetzaz ezinbestekoa izango baita berriz ere normaltasunera itzuli ahal izateko.

Pasaian, 2020ko azaroaren 16an

Izpta.: alkatea